



3HI-068/07-P05
GHI-042/07-P05

TEODORO OLEA ITURREGI, EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKETAREN
BATZORDEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Uztailaren 26an Vitoria-Gasteizen Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordeak egindako 4/2007 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuek aho batez, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

“ I.- Irurako udalerriko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak Aztertze espedienteak planteatutako Lurralde Ereduaren berri ematea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduaren 4/1990 Legean, eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko Legea aldatzeko 5/1993 Legean adierazitakoaren arabera, honako termino hauetan:

A) LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO TRESNETARA EGOKITZEA

I.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak:

• Bizitegi-kopurua.

Arauk Aztertze dokumentuak, udal-plangintza indarrean dagoen eperako 455 etxebizitza aurreikusten dituela; eta kopuru hori, lurralde-antolamendurako tresnetan ezarritako irizpideak aplikatzearen ondoriozko ahalmenarekin bat datorrela kontuan izanda, bizitegi-kopuruari dagokionean, proposamenaren aldeko balorazioa egiten da.

• Lurzoru Urbanizaezina antolatze kategoriak.

a) Espedienteak “Nekazaritzako lurzoru urbanizaezina”, “Nekazaritza eta abeltzaintzako, eta landazabaleko lurzoru urbanizaezin” gisa izendatu beharko du, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen ingurune fisikoa antolatzeko matrizean jasotzen den moduan.

b) Urek gainezka egin dezaketen eremuak biltzen dituen gainjarritako Baldintzarekin lotuta, espedienteak 2 zenbakidun planoan, Lurzoru Urbanizaezina Zonifikazioa, zuzendu beharko du, Eremu horiek ulergarriak izan daitezten.

c) Era berean dokumentazio grafikoan, Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Planean finkatutako ibilguak babesteko eremuak jaso behar dira.

II.- EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatze Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde Kantabriarra).

Arauk, Ibaien eta Erreken Ertzak antolatze Lurraldearen Arloko Planera egokitu beharko dira, eta eremu bakoitzeko hirigintzako fitxetan adierazi beharko



du, eremu bakoitzean egin daitezkeen esku-hartzeek eragin dezaketen ibilguekiko jarraian aipatuko ditugun erretiroak bete behar direla.

a) Zabalgun 9. Sektorean, ezarriko den Zatik Planaren gainetik, Oria ibaiaren ibilgua kontuan hartuta, eraikuntzak 30,00 metroko eta urbanizazioak 15,00 metroko gutxienerako erretiroa errespetatu behar dute.

b) Era berean, 20. Eremuan, Ibai-Ondo 2an, egingo dituzten eraikin berriek, Oria ibaiaren ibilguarekiko, gutxienez, 25 metroko erretiroa errespetatu beharko dute.

c) Kontuan izanda Arauak Aztertze dokumentuan aurreikusitako bizitegi-garapen berrien zati bat, uholdeen prebentzioaren plan integralaren arabera, itzulaldi diferentetarako urek gainezka egin dezaketen eremutan dagoela, alderdi hori kontuan izan beharko da bertan egin nahi duten edozein esku-hartzerako. Hori hala egingo da, lurraldearen antolamendurako artezpideen zehaztapenak (8. kapitulua, 6.8.8.5. idatz-zatia), eta ibaien eta erreken ertzak antolatze lurraldearen arloko planaren e.1.4 idatz-zatian ezarritakoa betez.

III. Jarduera Ekonomikotarako Lurzoru Publikoak eta Ekipamendu Komertzial Publikoak Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana.

Arauak Aztertze dokumentuak, batez ere, gaur egun dauden industria-lurzoruak finkatzeko proposatzen duela kontuan hartuta, Jarduera Ekonomikotarako Lurzoruaren kuantifikazioaren ikuspegitik, proposamenaren aldeko balorazioa egiten da.

B) 17/1994 LEGEAN EZARRITAKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ESTANDARRAK BETETZEA.

Irurako udalerrria, etxebizitzaren arloko presako neurriak eta hirigintza plangintzako zein kudeaketako tresnak izapidetzeko neurriak zehazteari buruzko ekainaren 30eko 17/1994 Legean ezarritako estandarrak bete behar ez baditu ere, dokumentuaren balorazio positiboa egiten da, bizitegi-garapen berrietan jasotako etxebizitzaren zati bat, babes ofizialeko erregimenerako eta etxebizitza tasatuko erregimenerako gordetzeko proposamenari dagokionean.

C) LURZORU URBANIZAEZINEAN ERABILERAK ERREGULATZEA

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Lehen Xedapen Iragankorra aplikatuta, Lurzoru Urbanizaezinean erabileren eta eraikuntzaren erregimenaren erregulazioa, aipatutako Legearen 31. artikuluan ezarritakora egokitu beharko du Planak.

D) UREN ZUZENDARITZA.

07.07.16ko data duen Uren Zuzendaritzaren txostenaren baldintza lotesleak bete beharko dira.



E) LANDAREN ETA ITSASERTZAREN GARAPENeko ZUZENDARITZA.

Araudi Orokorreko 104. artikuluko 7. puntuan, nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioak muga eta elementu diferentetara duten gutxieneko distantziak, *Abeltzaintzako ustiapenen arau teknikoak, higieniko eta sanitarioak, eta ingurumenekoak ezartzen dituen uztailaren 6ko 141/2004 Dekretuan* ezarritakora egokitzea, Dekretu hau derrigorrez bete behar duten ustiapen berrietan.

II.- Batzorde honi dagokion Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Lehen Xedapen Gehigarriko 3. puntuan xedatutakoaren helburuetarako, ziurtagiri honen I. puntuan aipatutako baldintzak sartu ondoren, administrazio eskudunak zuzenean erabakiko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendu Batzordearen txosten berriaren zain egon beharrik gabe. Hartutako erabakia Batzordeari jakinaraziko zaio hamar eguneko epean, gehienez.

III.- Ziurtagiri honekin batera doazen Uren Zuzendaritzak (I. Eranskina), Landa eta Itsasertzaren garapenerako Zuzendaritzak (II. Eranskina), eta Kultur Ondareko Zuzendaritzak (III. Eranskina) egindako txostenak organo eskudunari igortzea, honek behin betiko onar ditzan.”

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2007ko uztailaren 26an.

IDAZKARIA



Izta.: Teodoro Olea Iturregi.